



1. Haur Literaturaren txokoa

Gaurko proposamenean, jolas liburu txiki bat eta bi ipuin klasiko bildu ditugu. Pello Añorgaren hitzetan, badira kontutxo, jolas eta kontakizun batzuk edozein tokitan egiteko modukoak, jolasean, inongo errito jakinik jarraitu gabe. Beste batzuk berriz, haria galdu gabe eta arreta osoa eskainiz eman behar dira: errito batean kokaturik, isiltasunean, ordu intimo batean. Ez dago galderarik, ez dago erantzunik, ipuinak berak zabaltzen du bere bidea haurraren eta gure bihotzetaraino.

[Nor dabil hor? Émile Jadoul](#)

[Otsoño. Grégoire Solotareff](#)

[Erraldoia eta txoriak. Ghislaine Biondi eta Rebecca Dautremer](#)

2. Egitasmoa martxan

Aldian behin Irakurketa Kluben berri ekartzen dugu. Ekintza honetan, hurrek hartzen dute parte gurasoekin batera. Liburu ederrak erabiltzen ditugu saioetan, eta horiek kontatu, ikusi eta gozatzeko hainbat aukera eskaini. Saio guztietan hitz jolasak erabiltzen ditugu, eta kantari ere aritzen gara pixka batean. Ikusi [saio bat](#).

Bukaerarako beti sorpresa txiki bat prestatzen dugu. Hemen adibidez, [Hara nora joan diren zazpi bat oilasko...](#) pieza (*Maria Goikoak batbirulau!* liburutik jaso) erabili dugu kontu txiki hori kontatu eta antzezteko.

3. Hausnarketa gunea

BULARRETIK MINTZORA malgutasun handiz aplikatzen saiatzen gara egoera eta leku desberdinetan. Herri bakoitzean kanpaina abiatzeko, bertako baldintzak eta prozedurak eztabaidatzen ditugu tokiko eragileekin. Hala ere, badira egitasmoa ezartzeko ezinbesteko baldintza batzuk. Hala nola, irizpide teoriko batzuen arabera antolatutako hedapen sistematizatu bat izatea, egitarau jakin bat aplikatzea, eta egitarau hori behatu ahal izatea.

Bestalde, herri txikien beharrei egokitzeko, bestelako aukerak ere eskaini behar izan dira, baina gutxienerako baldintza batzuk bermatzea eskatzen dugu:

- Eskolan egitasmo sistematizatu izan dadila
- Irakasle eta gurasoen prestakuntza egoera bakoitzari egokitu, baina alde aurretik egitarau oso ondo lotuta utzi
- Biblioteka publikorik, edo eskola bibliotekarik ez badago, biblioteka txiki bat montatzeko borondatea agertu behar du herriak: gutxienerako katalogazioa, eta mailegu zerbitzua bermatu ahal izateko

Era honetako aplikazio berezi bat Bilbo/Arrigorriagako Abusu-La Peña auzoan garatzen ari gara. Bertako osasun zentroko profesional eta gurasoen, zein bertako bibliotekariaren iritziak ikus daitezke [hemen](#).

4. Ongi pasatzeko!

Ikastea eta ondo pasatzea soka beretik abiatzen dira gure ustetan. Gaurko proposamenean [Éditions MeMo](#) argitaletxe frantziarraren liburu bereziak ekarri ditugu zuen begietara. Letrak, zenbakiak, ariketa matematikoak, formak, koloreak... natura- eta gizarte-zientziak haur txikien kontzeptuen mundura egokituak beti ere. Lan gehienak bisualak dira, beraz, hizkuntza ez da eragozpena liburuetatuz gozatu eta horiekin ikasteko. Argitaletzeko zenbait egileren adibideak hemen: [Anne Bertier](#), [Clemente Glandillot](#), [Gay Wegerif](#) eta [Anne Crussaz](#).